

Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña Ekainak **17** Junio 20:00 h.




EUSKADIKO  
ORKESTRA

**2010-2011**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO  
ORKESTRA



## Gaurko kontzertua

### El concierto de hoy

**BIHOTZEKO SEKRETUAK.** Schumannen eta Brahmsen biografiek lehenengoaren bizitzaren azken urteetan egin zuten bat, baina horren ondorioek bigarrenaren adiskide eta betiko konfiantzazko lagun Clara Schumann hil zen arte iraun zuten. Brahmsen esanetan, “*Bigarren kontzertua Lehenengoari* dagokionez zer, huraxe da gizon heldua izan zen gizonari dagokionez”. Schumannni dagokionez, *Bigarren Sinfonia* poetiko eta latzak argi eta garbi erakusten zuen musikariak berehalako burua galtzea ekarriko zion erotasunaren aurka egindako borroka; izan ere, musikaria nerbio-depresioak jotza zegoen obra idatzi zuean, eta garbi zegoen amaiera tragikoa izango zuela.

**SECRETOS DEL CORAZÓN.** Las biografías de Schumann y Brahms se encuentran tan sólo en los últimos años de vida del primero pero sus efectos seguirían vigentes hasta la muerte de Clara Schumann, amiga y eterna confidente del segundo. Para Brahms, “el Segundo Concierto es al Primero lo que el hombre maduro al hombre que fue”. En el caso de Schumann, su poética y febril Segunda Sinfonía, escrita bajo las secuelas de una depresión nerviosa que dejaba presagiar su trágico final, refleja sin disimulos la lucha sostenida por el músico contra una locura que se anunciaba inminente.

Papel birziklatua / papel reciclado



Hemen jarrai ahal izango  
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al Euskor digital en

[www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

webgunean izena eman  
Euskor digitalean

Testuak / Textos:  
Juan Manuel Viana

## Egitaraua / Programa

2

### Johannes Brahms (1833-1897)

Concierto para piano y orquesta nº2 en si bemol mayor, opus 83 [46']

- I. Allegro non troppo
- II. Allegro apasionato
- III. Andante
- IV. Allegretto gracioso

### Robert Schumann (1810-1856)

Sinfonía nº2 en do mayor, opus 61 [36']

- I. Sostenuto assai - Un poco vivace – Allegro ma non troppo
- II. Scherzo. Allegro vivace
- III. Adagio espressivo
- IV. Finale: Allegro molto vivace

Franziska Früh  
kontzertinoa / concertino

Düsseldorfer Symphoniker  
orquestra gionbidatua / orquesta invitada

Andrey Boreyko  
zuzendaria / director

Khatia Buniatishvili  
pianoa / piano

# Egitarauari Oharrak

## Notas al Programa

### Concierto para piano y orquesta nº2 en si bemol mayor, opus 83

**Johannes Brahms** - Hamburgo, 7 de mayo de 1833 - Viena, 3 de abril de 1897

Holanda, Hungaria eta Italiatik bidaian aritu eta gero, 1881eko udaberrian Brahmsek atzean utzi zuen Viena eta inguruko Pressbaum hirira joan zen bizitzera. Erretiro aldi hartako lasitasun giroan, ezohiko azkartasunez konposatu zuen *Pianorako bigaren kontzertua*, hiru urte lehenago zirriborratutakoa, baina bazter utzitakoa bi partitura handiri heltzeko: *Kontzertua re maiorrean, opus 77* eta *Sonata 1. zk. sol maiorrean, opus 78*. Bere umore bereziarekin, 1881eko uztailaren 7an, Brahmsek hauxe idatzi zien lagun eta dizipulu zuen Heinrich von Herzogenbergi eta haren emazte Elizabethi: “Pianorako kontzertu txiki bat amaitzen ari naiz, scherzo eder eta txiki bat duena”. Bere handitasunagatik, inspirazioaren sakontasunagatik eta muin-muineko birtuosismoagatik, kontzertu berriak, hogei urte baino lehenago gaztaroen konposatu zuen *Kontzertua re minorrean* kontzertu aztoratuhura baino baikor eta bareagoak, Brahmsean idatzera erabateko helduarora iritsi zela erakusten digu. Izan ere, bere lagun Billroth konpositoreari hitz hauek idatzi zizkion, “*Bigaren Kontzertua, Lehenengoaren* aldean zera da, gizon heldua lehen izan zen gizonaren aldean”. Duen izaera sinfonikoak, orkestraren barruan solista teilkatzaten den modu hobezinaz gainera –pianoa bertan integratuz ez ezik bertan parte ere izanik–, lau ataleko ezohiko banaketa formalak dakar berekin. Hala, arrazoi horregatik definitu zuen Hanslickek honela “sinfonia piano behartuarekin”.

Tras una serie de viajes por Holanda, Hungría e Italia, Brahms abandona Viena en la primavera de 1881 trasladándose a la localidad cercana de Pressbaum. En la tranquilidad de su retiro compone con inusual rapidez su *Segundo Concierto para piano*, abocetado tres años antes pero que había quedado abandonado en beneficio de dos ambiciosas páginas violinísticas: el *Concierto en re mayor, opus 77* y la *Sonata nº 1 en sol mayor, opus 78*. Con su particular humor, el 7 de julio de 1881 Brahms escribía a su amigo y discípulo Heinrich von Herzogenberg y a su esposa Elizabeth: “Estoy terminando un pequeño concierto para piano con un bello y pequeño scherzo”. Por sus dimensiones colosales, la profundidad de su inspiración y su esencializado virtuosismo el nuevo concierto, de tono más optimista y distendido que el exaltado *Concierto en re menor*, obra juvenil anterior en más de veinte años, confirma la absoluta madurez de la escritura brahmsiana. Tal como escribiera al compositor su amigo Billroth, “el Segundo Concierto es al Primero lo que el hombre maduro al hombre que fue”. Su concepción sinfónica implica, además de la perfecta imbricación del solista en el seno de la orquesta –el piano no sólo se integra en ella sino que forma parte de la misma–, la insólita división formal en cuatro secciones; de ahí que Hanslick definiera la obra como “sinfonía con piano obligado”.



Giro epel eta iradokitzale batean, *Allegro non troppo* luzeari tronparen bi esaldi arranditsuk ematen diote hasiera –Weberren *Oberoneko* oberturaren oihartzun–, teklatuak babestutakoek eta zur eta hari instrumentuek jasotakoek. Solistaren sarrerako kudentziak, lehenengo gaiaren berealdeko *tutti* errepikapenaren ondoren, hariek eutsita, bigarren gai sutsuari bide emango dio eta, orkestraren eskutik, bigarren mailako beste batek jarraituko dio, irrikatsuagoak eta garrazagoak. Murrizketa tematikoa nabarmena izanik ere, musikariak dialogo bizia eta tentsiozkoa landu du pianoaaren eta orkestraren artean, hasierako gaiari dagozkion elementuen laburbiltze joratzen antzera koda zabal batean amaitzeko. Brahms denbora geldo tradicionalaren ordez *Allegro appassionato* erabili du –kompositoreak aipatutako “scherzo txiki” hura–, hasiera batean *Kontzertua biolinerako* zena eta Joachimen aholkuz bertan behera utzitakoa. Sonata moduan, atal aztoratu honi darian dramatismoari bi gaik eusten diote: asaldatua aurreneko eta barea bigarrena, harien unisonoak leunduta. Ahalmen handiko klimax baten ondoren, atal fugatu bitxi bat sortzen da, kutsu klasizista dariona, eta hasierako pasarte goibelaren itzuleraren aurrekoia.

*Andantea*, hiru zatitan antolatua, lehenengo biolontxeloak nabarmendutako parentesi lasai bat da. Ezaugarri duen melodía lirikoa bost urte geroago erabili zuen Brahms en *Lied Immer leiser wird mein Schlummer, opus 105* 2. zk. obran. Oboearren interbentzioaren oihartzunarekin, *Kontzertua biolinerakoaren* denbora berdintsuau, hemen musikariak bilateke omenaldi egitea bere maite Clara Schumann –hark ere biolontxelo behartua erabili zuen bere gaztaroko *Kontzertua pianorako* obraren *Erromantzan*–. *Più adagio* markatutako erdiko atalak inspirazio handiko estasziko kontenplazio unea aditzera ematen digu, jarraitzeko irtenbiderik gabe biolontxeloaren

El amplio *Allegro non troppo* se inicia, en una atmósfera relajada y evocadora, con dos majestuosas frases de la trompa –eco de la obertura weberiana de *Oberón*– arropadas por el teclado y recogidas por maderas y cuerdas. Una cadencia introductoria del solista conduce, tras la grandiosa repetición en *tutti* del primer tema, al apasionado segundo, sostenido por las cuerdas, al que sucede otro secundario más anhelante e incisivo a cargo de la orquesta. Pese a la evidente restricción temática, el músico elabora un expresivo y tenso diálogo entre piano y orquesta que desemboca en una amplia coda a modo de recapitulación variada de los elementos del tema inicial. Brahms sustituye el tradicional tiempo lento por un *Allegro appassionato* –aquel “pequeño scherzo” al que hacía mención el compositor– destinado en un principio al *Concierto para violín* y abandonado por consejo de Joachim. El dramatismo de esta turbulenta sección en forma sonata se apoya en dos temas: agitado el primero y reposado el segundo, suavizado por el unísono de las cuerdas. Tras un poderoso clímax se produce una curiosa sección fugada de reminiscencias clasicistas que precede el regreso del sombrío episodio principal.

Dispuesto en forma tripartita, el *Andante* constituye un reposado paréntesis realizado por el primer violonchelo, cuya lírica melodía será empleada por Brahms cinco años después en el *Lied Immer leiser wird mein Schlummer, opus 105* n° 2. Con el eco de la intervención del oboe en el tiempo análogo del *Concierto para violín*, quizás el músico homenajeara aquí a su querida Clara Schumann, que también hizo uso del violonchelo obligado en la *Romanza* de su juvenil *Concierto para piano*. La sección intermedia, marcada *Più adagio*, señala un inspiradísimo momento de extática contemplación que lleva, sin solución de continuidad, a la reaparición del noble canto del violonchelo en

kantu nobleari berriro helduko diona, kontzertu bikoitz moduan teklatuarekin elkarritzetan. Amaierako *Allegretto grazioso*, gardenak izateagatik bereizten diren testura instrumentalak dituena, rondo-sonata moduan landuta dago eta diskurtso atsegina bezain arina garatzen du. Biltzen dituen pasarte desberdinaren aparteko joritasun melodikoa nabarmentzen da bertan, bioletak lagunduta solistak hasieran planteatutako oso saltokaria den horretatik zurek jotako horretaraino, ondoren hariek eta pianoak eutsitakoa, kutsu zingaro nabaria eta sentsuala dariona. Pianoaren eta orkestraren arteko elkarritzeta arina, ia improbisaziozkoa, bozkariozko emaitza dakar amaieran.

*Kontzertua si bemol/maiorrean*, Brahmskere bere “maisu ohoratu eta lagun Eduard Marxsen” eskainia, Budapesten estrenatzen zen 1881eko azaroaren 9an, Alexander Erkel zuzendari zela eta autorea pianoan, bere parte solistaren eskakizun teknikoak nekez gainditzea lortu ahal zuena. Izugarrizko arrakasta izan zuen eta berehala hasi zen bira, hurrengo urteko otsailera arte luzatu zena. Bira hartan, konpositoreak leku hauetan interpretatu zuen obra: Stuttgart, Meiningen, Zurich, Basilea, Estrasburgo, Baden-Baden, Breslau, Viena, Leipzig, Berlin, Kolonia, Hanburgo, Kiel, Bremen, Münster, Utrecht, Haga, Rotterdam, Amsterdam, Frankfurt eta Dresde.

## 2.

### Sinfonía nº2 en do mayor, opus 61

**Robert Schumann** - Zwickau, 8 de junio de 1810 - Endenich, Bonn, 29 de julio de 1856

1839an, Robert Schumann kexu zen genero sinfonikoa sufritzen ari zen krisialdiaz Beethovenen partitura iraultzaileen agerraldiaaren ondoren: “Sinfonia berri gehienak gero eta gehiago erortzen ari dira oberturaaren estiloan, batik bat lehenengo mugimenduak. Mugimendu geldoak ezin direlako ezabatu daude hor, besterik gabe. Scherzoei izena besterik ez zaie geratzen. Amaierako mugimenduek orain ez edituzte ezagutzen aurrekoen edukiak”. Saxoniako musikaria bide berri bat jorratzen

diálogo con el teclado a modo de doble concierto. El *Allegretto grazioso* final, de texturas instrumentales especialmente transparentes, está elaborado en forma de rondó-sonata y desarrolla un discurso de tono amable y ligero en el que destaca la excepcional riqueza melódica de sus diversos episodios, desde el muy saltarín planteado al inicio por el solista acompañado de las violas hasta el expuesto por las maderas, y sostenido luego por las cuerdas y el piano, de inconfundible y sensual aroma zíngaro. El fluido diálogo entre piano y orquesta, casi improvisatorio, desemboca en una conclusión exultante.

Dedicado por Brahms a su “venerado maestro y amigo Eduard Marxsen”, el estreno del *Concierto en si bemol mayor* tuvo lugar en Budapest, el 9 de noviembre de 1881, con Alexander Erkel en el podio y su autor al piano, que a duras penas consiguió superar las exigencias técnicas de su parte solista. El éxito fue clamoroso y propició una inmediata gira que se extendería hasta febrero del año siguiente durante la cual el compositor interpretó la obra en Stuttgart, Meiningen, Zúrich, Basilea, Estrasburgo, Baden-Baden, Breslau, Viena, Leipzig, Berlín, Colonia, Hamburgo, Kiel, Bremen, Münster, Utrecht, La Haya, Rotterdam, Ámsterdam, Frankfurt y Dresde.

En 1839 Robert Schumann se lamentaba así de la crisis que aquejaba al género sinfónico tras la aparición de las revolucionarias partituras beethovenianas: “La mayoría de las nuevas sinfonías succumben cada vez más al estilo de una obertura, sobre todo los primeros movimientos. Los movimientos lentos están ahí sólo porque no pueden suprimirse. Los scherzos no tienen de eso más que el nombre. Los movimientos finales ya no saben lo que contienen los precedentes”. El músico

saiatuko zen, Bonneko musikariak utzitako itzel izugarri handi hura gainditzearen, eta horretarako mugimenduen arteko erlazio tematikoen prozedurari ekin zion, ordurako *Sinfonia "Udaberria"* obra izanik saialdietako bat, *Bigarrenean* sendoago ageriko zena. Hala, lehenengo mugimenduaren funtsezko gaiak eta Finalekoak sarreran bertan sumatu daitezke, eta amaierako mugimenduak denbora geldoaren motiboak aditzera emango dizkigu. Teknika hau, obraren atal desberdinak lotuko dituzten elementu komunen bitartez osotasuna lortzea helburu duena, ohiko bihurtu zen Schumannek utzitako ondare sinfonikoan eta eragina izan zuen hark babestutako Johannes Brahms lagunaren orkestrarako partituretan.

Schumannentzat 1840. urtea *Liedaren* urtea izan zen eta 1842 ganbera musikarena; 1841. urtea, berriz, bere soinu-biografia ziklotítmicoari lotuta dago, urte sinfonikoa bezalaxe, sormen eztanda handikoa. *Sinfonia 1. zk. "Udaberria"*, op. 38ren ondoren *Fantasia la menorrean* konposatu zuen, aurrerago honako hauek ekarri zituena: *Kontzertua pianorako*, op. 54aren lehenengo mugimendua, *Oertura, Scherzo eta Finale*, op. 52 triptikoa eta *Sinfonia re menorrean* (geroago *Sinfonia 4. zk.*, op. 120 izenez berriro bataiatutakoaren jatorrizko bertsioa). Hortaz, *Bigarren Sinfonia* zenbakia emandakoa, izan ere, hirugarren da Schumannen obra bilduma osoa kontuan hartuta, sortu izan zituen urteei zorrotz jarraituz gero. Bere aurreko bi sinfonieei musikariak berehala ekin zien bitartean, *Bigarrenaren* sortze prozesua nekeza izan zen, zalantza ugari sorrarazi baitzikion eta, gainera, auto-rearen amaiera tragikoaren aurreneko aztar-nak sumatzen hasiak zirenean, sufritzen ari zen nerbio-depresioak eraginda. Schumann ia urtebetetze aritu zen *Sinfonia 2. zk.* lantzen, 1845eko abenduan Dresden idatzitako zirri-borroetatik hasi eta 1846ko urrian sinfonien orkestrazioa amaitu zuen arte, barne-belarrian burrunba hots antzeko bat etengabe entzuten zuelako kexu zen aldian.

Metalek goxotasunez iragarrita eta hariek eutsita, sarraldi irmoa (*Sostenuto assai*), *Sinfonia 1. zk.n* bezala, jarraituko dion guztiaren zelula

sajón intentará abrir una nueva vía que permite superar la gigantesca sombra del músico de Bonn mediante un procedimiento de relaciones temáticas entre movimientos, ya ensayado en la *Sinfonía "Primavera"*, pero que en la Segunda cobrará especial intensidad. Así, los temas esenciales del primer movimiento y del Finale resuenan ya en la introducción, y el movimiento conclusivo hará alusión al material motívico del tiempo lento. Una técnica, la de perseguir una unidad global a través de elementos comunes que liguen las diversas secciones de la obra, que se hará habitual en el legado sinfónico de Schumann y llegará a influir en la escritura orquestal de su amigo y protegido Johannes Brahms.

Si para Schumann el año 1840 fue el año del *Lied* y 1842 sería el de la música de cámara, 1841 debe inscribirse en su ciclotímica biografía sonora, pródiga en intensas explosiones de creatividad, como el año sinfónico. A la *Sinfonía nº 1 "Primavera"*, op. 38 seguirían la *Fantasia en la menor*, convertida más adelante en el primer movimiento del *Concierto para piano*, op. 54, el tríptico *Obertura, Scherzo y Finale*, op. 52 y la *Sinfonía en re menor* (versión primigenia de la que más adelante sería rebautizada como *Sinfonía nº 4*, op. 120). Por tanto, la numerada como *Segunda Sinfonía* es, en realidad, la tercera en el cómputo general schumanniano según la estricta cronología de su gestación. A diferencia de la rapidez con que el músico acometió la elaboración de sus dos sinfonías anteriores, el proceso creativo de la Segunda fue laborioso, dubitativo y sometido a las secuelas de una depresión nerviosa que ya parecía presagiar el trágico final de su autor. Schumann trabajó en la *Sinfonía nº 2* durante casi un año, desde los bocetos escritos en Dresde en diciembre de 1845 hasta el término de su orquestación en octubre de 1846, al tiempo que se quejaba constantemente de una especie de zumbido en su oído interno.

Enunciada con dulzura por los metales y sostenida por las cuerdas, la solemne introducción (*Sostenuto assai*) constituye, como en la *Sinfonía nº 1*, la célula generadora de todo

sortzailea da, mugimenduaren kodan berriro agertuz, *Allegro ma non troppo* markatuta, baita bigarren eta laugarren mugimenduen amaieran ere. Schumannen hitzetan, hasierako zati hau, erritmo obsesiboez sutu eta asaldatutako hau, “gatazkatsua eta setatia” zen, akaso musikariak bere adimen ezegonkorren kontra eutsitako borrokanren isla. *Scherzo (Allegro vivace)* berotuak badu halako kidetasuna, *perpetuum mobile* moduan, *Sinfonia “Udaberria”*-rekin, kontrastatutako bi trioren presentzia komun eta ezohikoagatik: arina eta distiratsua lehena eta goibelagoa bigarrena, Mendelsohnren instrumentazio kutsua dariona.

Hiru zatitan eraikia eta karga poetiko nabarriona, *Adagio espressivo* partitura osoaren muin expresiboa da, inolako zalantzari gabe. Nostalgiares eta etsipenaren arteko erdibidean, daron giro xamur eta barea, hariet sorrarazitakoa eta oboearen kexuzko kantua tartean dela, lirismo sakon eta malenkoniatutsa iristen da, Mahlerren unibertsal emozionalari aurrea hartuz. Amaierako *Allegro molto vivace* oso egitura askeea du eta Florestanek aitzakiarik gabe Eusebio garaitu izana aditzera ematen digu; hau da, bizitasun eta adore handiko Schumann eta bere baitan bildutako eta deprimitudako hura aurkatuta. Hala, ga-raipen hori fanfarria doinu alaien eta Beethovenen oihartzun nabarien artean sortutakoa da, *Urrutiko maiteari* ahots zikloaren aipuak azpimarratuta. Hasierako mugimenduaren garapenean bezala, kontrapuntuen pasareten agerraldia nabarmentzen da. “Maisu handien fugak jo ohi ditu sarritan”, idatzi zuen Schumannek handik gutxira *Albuma gazterarentzat*, op. 68 obraren eranskinean “eta, batik bat, Johann Sebastian Bachenak. Ondo eztitutako klabea izan dadila zure eguneroko ogia. Eta horrela iritsiko zara balio handiko musikari izatera”.

Suedia eta Norvegiako Oskar I.a erregearei eskainia, Robert Schumannen *Sinfonia 2. zk. domaiorrean*, op. 61 Leipzigeko Gewandhaus-en estreinatu zuen 1846ko azaroaren 5ean haren lagun Felix Mendelsohnek, bost urte lehenago, izen handiko areto hartan bertan, *Sinfonia “Udaberria”* ezagutzera eman zuenak.

lo que seguirá, reapareciendo en la coda del movimiento, marcado *Allegro ma non troppo*, y al final de los movimientos segundo y cuarto. Schumann definió a este segmento inicial, febril y agitado por ritmos obsesivos, como “conflictivo y obstinado”, reflejo acaso de la lucha sostenida por el músico contra su inestabilidad mental. El exaltado *Scherzo (Allegro vivace)* se emparea, a modo de *perpetuum mobile*, al de la *Sinfonía “Primavera”* por la común y anómala presencia de dos tríos contrastados: de carácter ligero y luminoso el primero y más sombrío el segundo, de instrumentación mendelssohniana.

De construcción tripartita y dotado de una inefable carga poética, el *Adagio espressivo* constituye sin duda el corazón expresivo de toda la partitura. A caballo entre la nostalgia y la resignación, su atmósfera tierna y serena, encomendada a las cuerdas y coloreada ocasionalmente por el quejumbroso canto del oboe, alcanza un intenso y melancólico lirismo que prefigura el universo emocional mahleriano. El *Allegro molto vivace* final, de estructura muy libre, presencia la inapelable victoria de Florestán sobre Eusebio; es decir, del Schumann enérgico y vital sobre el ensimismado y depresivo. Una victoria que se produce entre jubilosos sones de fanfarria y ecos inconfundiblemente beethovenianos, subrayados por una cita del ciclo vocal *A la amada lejana*. Al igual que en el desarrollo del movimiento inicial, destaca la presencia de pasajes contrapuntísticos. “Toca asiduamente las fugas de los grandes maestros”, escribirá Schumann poco después en el apéndice al *Álbum para la juventud*, op. 68, “y, sobre todo, las de Johann Sebastian Bach. Que *El clave bien temperado* sea tu pan de cada día. Y así llegarás a ser un músico valioso”.

Dedicada al rey Oscar I de Suecia y Noruega, la *Sinfonía nº 2 en do mayor*, op. 61 de Robert Schumann fue estrenada en la Gewandhaus de Leipzig, el 5 de noviembre de 1846, por su amigo Felix Mendelsohn, que ya había dado a conocer cinco años antes en la misma legendaria sala la *Sinfonía “Primavera”*.

## Musika argudio

### La música como pretexto

P. Rattalino

“Brahms zen abiaburuko sortzailea, pianoaren inguruau idatzitako literatura guztia atzera begira irakurtzeko, Op. 83an lortu zuelarik gailurra. Brahms era el creador del que había que partir para leer retrospectivamente toda la literatura pianística, que en el Op. 83 alcanzaba su cumbre.”

R. Schumann

“Nire pianoa suntsitzeko tentaldian erortzen ari naiz; estuegi bihurtu da nire ideiak barnean hartzeko. Izan ere, oso esperientzia urria dut orkestra-rako musikan, baina ez dut etsi nahi, lortuko dudalakoan bainago. Estoy tentado de destruir mi piano; se ha vuelto demasiado estrecho para contener mis ideas. Realmente tengo muy poca experiencia en cuanto a música orquestal, pero no desespero de llegar a adquirirla.”

## Gure iradokizun diskografikoa

### Nuestra sugerencia discográfica

R. Schumann: Sinfonía nº 2

Orquesta Sinfónica de la Radio Bávara.  
Zuzendaria/Director: Rafael Kubelik.  
Sony, 1979.

J. Brahms: Concierto para piano y orquesta nº 2

Vladimir Ashkenazy, piano/piano.  
Orquesta Filarmónica de Viena.  
Zuzendaria/Director: Bernard Haitink. Decca, 1982.

Andrey  
Boreyko

zuzendaria  
director



Andrey Boreyko Euskadiko Orkestraren Zuzendari Printzipal Gonbidatua da 2009/2010 denboraldiaz geroztik. Düsseldorfer Symphoniker-en musika-zuzendari nagusia eta Stuttgart Radio Symphony Orchestra-ren (SWR) zuzendari gonbidatu printzipala da. Gainera, Belgikako Orkestra Nazionaleko zuzendari titular izango da 2012ko irailetik aurrera. Berner Symphonie-Orchester, Jenaer Philharmonie, Hamburger Symphoniker, Winnipeg Symphoniker Orchestra taldeen zuzendari titularra izan da eta Vancouver Symphony orkestraren zuzendari printzipal gonbidatua. Halaber, Jenaer Philharmonie orkestrako ohorezko zuzendaria da. Andrey Boreyko nazioarte mailako orkestra gailenenak zuzendu ditu, horien artean Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Errusiako Nazionala, Royal Concertgebouw, Rotterdamgo Filarmonikoa, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Radio France, New York Philharmonic eta Los Angelesko Filarmonikoak eta Boston, Chicago, Cleveland eta Philadelphiako orkestrak.

Andrey Boreyko es Director Principal Invitado de la Orquesta de Euskadi desde la temporada 2009/2010. Es además director musical de la Düsseldorfer Symphoniker y principal director invitado de la Stuttgart Radio Symphony Orchestra (SWR). Recientemente nombrado director titular de la Orquesta Nacional de Bélgica, desempeñará este cargo a partir de septiembre de 2012. Ha sido director titular de la Berner Symphoniorchester, Jenaer Philharmonie, de la que es director honorario, Hamburger Symphoniker y de la Winnipeg Symphony Orchestra, así como director principal invitado de la Vancouver Symphony. Andrey Boreyko ha dirigido la mayoría de las orquestas más importantes del panorama internacional, como la Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Nacional de Rusia, Royal Concertgebouw, Filarmónica de Rotterdam, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Filarmónicas de Radio France, Nueva York y Los Angeles y las orquestas de Boston, Chicago, Cleveland y Philadelphia.

## Khatia Buniatishvili

pianoa  
piano



1987an Tbilisin (Georgia) jaioa, bere talentu nabarmena oso gazte zela izan zen aintzat hartua. Orkestra batekin bakarları gisa sei urte zituela aritu zen estreinakoz eta ondoren Suitza, Herbehereak, Frantzia, Alemania, Belgika, Italia, Austria, Errusia, Israel eta Estatu Batuetan kontzertuak eskaintzeko gorbita jaso zuen. Bakarka errezialak eta ganbera kontzertuak eskaini ditu Londresko Wigmore Hall, Amsterdamgo Concertgebouw eta Vienako Musikverein bezalako areto ospetsuetan. BBC Radio 3 irratia 2009/2011 eperako Artista Berrien Belaunadiko kide hautatua, sarritan aritzen da BBCko orkestrekin lankidetzen. 2010ean Borletti-Buitoni Trust delakoaren sari bat merezi izan zuen eta Vienako Musikverein eta Konzerthausen "Goraka doan Izar" izendatu zuten 2011/2012 denboraldirako. Laister izango dituen konpromezuaren artean Frankfurteko Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Israelgo Orkestra Filarmonikoa Kent Naganoarekin eta Pariseko Orkestrarekin, Paavo Järvi zuzenduta, kontzertuak izango ditu. Halaber, errezialak eskainiko ditu Berlin, Viena, Amsterdam, Tokyo eta Londresko Wigmore Hall aretoan eta hainbat jaialditan arituko da, horien artean Rheingau Musik Festival, Klavier-Festival Rhur eta MDR Musiksommer.

Nacida en Tbilisi (Georgia) en 1987, el talento extraordinario de Khatia Buniatishvili fue reconocido siendo ella muy joven. Debutó como solista junto a una orquesta cuando contaba seis años y posteriormente fue invitada a ofrecer conciertos en Suiza, Países Bajos, Francia, Alemania, Bélgica, Italia, Austria, Rusia, Israel y los Estados Unidos. Ha ofrecido recitales en solitario y conciertos de música de cámara en salas de prestigio como Wigmore Hall de Londres, el Concertgebouw de Ámsterdam y el Musikverein de Viena. Seleccionada como miembro de la Nueva Generación de Artistas para el período 2009/2011 por la BBC Radio 3, colabora regularmente con las orquestas de la BBC. En 2010 recibió un premio del Borletti-Buitoni Trust y ha sido nominada por el Musikverein y el Konzerthaus de Viena como Estrella Emergente para la Temporada 2011/2012. Sus próximos compromisos incluyen conciertos con la Sinfónica de la Radio de Frankfurt, la Filarmónica de Israel con Kent Nagano y la Orquesta de París con Paavo Järvi. Asimismo ofrecerá recitales en Berlín, Viena, Ámsterdam, Tokio y en el Wigmore Hall de Londres y actuará entre otros en el Verbier Festival, el Rheingau Musik Festival, Klavier-Festival Rhur y el MDR Musiksommer.

[www.khatiabuniastishvili.com](http://www.khatiabuniastishvili.com)

## Düsseldorfer Symphoniker

orquestra  
gonbidatua  
orquesta  
invitada



"Düsseldorf-entzat orkestra izatea", hauxe da Düsseldorfeko Orkestra Sinfonikoak urtean 250 aldiz bere buruari ezartzen dion egiteko eta helburua. Orkestrak bi alderdi dauzka... izan ere Tonhalle-n eta Deutsche Oper am Rhein-en bi opera-aretotan aritzeak lan egiteko modu berezi bat eragiten dute. Orkestrak kultur-hiri Düsseldorf-en izena mundu osoan zehar zabaltzen du eta Herbeheretan, Austria, Txekiar Errepublikan, Suitza, Spainia, Txina eta Japonian aritua da jada. Orkestrak ibilbide luzea egina du historian zehar: Händel edo Arcangelo Corelli "Düsseldorfer Hofkapelle" orkestran hasi ziren. XIX. mendean maila ertainetan musika-kulturak bizi izan zuen gorakadaren ondorioz sortu zen Düsseldorf-eko Städtische Musikverein. Lehenengo musika zuzednarien artean F. Mendelssohn eta F. Hiller dauzkagu. Ondorengo hamarkadetan orkestra herrialdeko talde garrantzienetako bat bihurtu zen. Alemaniako bigarren udal orkestra zaharrena da. 1945 urtearen ondoren, Heinrich Hollreiser izan zen hau berrantolatzearrarduratu zena, musika zuzendarri nagusi gisa. Ondoren E. Szenkar, J. Martinon, R. Frühbeck de Burgos, H. Czyz, W. van Otterloo, B. Klee, D. Shallon, S. Mas Conde eta J. Fiore aritu ziren. Deutsche Oper am Rhein delakoan C. Kleiber, H. Wallat, C. Thielemann eta F. Luisi-k zuzendu dute. 2009. etik Andrey Boreyko da Düsseldorfer Symphoniker orkestraren musika zuzendarria.

"Orquesta para Düsseldorf"- es una tarea y una aspiración que la Orquesta Sinfónica de Düsseldorf se impone a sí misma 250 veces al año. La orquesta es una agrupación que posee dos facetas... porque el trabajo en el Tonhalle y en la Deutsche Oper am Rhein con dos escenarios de ópera supone trabajar de una manera poco habitual. La orquesta exporta el nombre de Düsseldorf como ciudad de la cultura a todo el mundo, habiendo realizado giras a los Países Bajos, Austria, República Checa, Suiza, España, China y Japón. La Orquesta ha realizado un largo recorrido a través de la historia: artistas internacionalmente reconocidos como Händel y Arcangelo Corelli comenzaron a trabajar con la "Düsseldorfer Hofkapelle". El incremento de la cultura musical en las clases medias en el siglo XIX derivó en el nacimiento del Städtische Musikverein en Düsseldorf. Entre los primeros directores musicales se incluyen F. Mendelssohn y F. Hiller. En las siguientes décadas la orquesta se convirtió en una de las agrupaciones más importantes del país. Es la segunda orquesta municipal más antigua de Alemania. Después de 1945 Heinrich Hollreiser fue el responsable de su reconstrucción como director musical general. Le siguieron E. Szenkar, J. Martinon, R. Frühbeck de Burgos, H. Czyz, W. van Otterloo, B. Klee, D. Shallor, S. Mas Conde y J. Fiore. En Deutsche Oper am Rhein han dirigido a la orquesta C. Kleiber, H. Wallat, C. Thielemann y F. Luisi. Desde 2009 Andrey Boreyko es director musical de la Düsseldorfer Symphoniker.

[www.tonhalle.de/duesseldorf\\_symphoniker](http://www.tonhalle.de/duesseldorf_symphoniker)

---

**Hemen amaitzen da Euskadiko Orkestraren Abonu-Denboraldia, baina ez bere jarduera, egun gutxitan Alemanian barrena bira bat burutuko baitu, Düsseldorfer Symphoniker orkestrarekin elkartrukean. Düsseldorf-eko Tonhalle-n eta Gütersloh-ko Theater Gütersloh-n arituko da.**

**Hiru izango dira urrian hasiko den 2011/2012 Abonu-Denboraldiaren ardatz nagusiak: errepetorio klasikoan funsezkoak diren obrak interpretatzu musikan sakontzea, oso ezagunak diren lanak eskainiz dibertitu eta egungo konpositoreen sorkuntzara irekitzea. Zuen zain izango gaituzue!**

Aquí termina la Temporada de Abono de la Orquesta de Euskadi, pero no así su actividad, ya que en pocos días emprende una nueva gira a Alemania, fruto del intercambio con la Düsseldorfer Symphoniker, que le llevará al Tonhalle de Düsseldorf y al Theater Gütersloh de Gütersloh.

La Temporada de Abono 2011/2012, que dará comienzo en el mes de octubre, vendrá marcada por tres líneas principales: profundizar en la música a través de obras capitales en el repertorio clásico, divertirse y divertir con la interpretación de obras muy populares y abrirse a la creación de los compositores actuales. ¡Les esperamos!

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | [www.euskadikoorquestra.es](http://www.euskadikoorquestra.es)

Miramón Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO  
ORKESTRA